

Maite zaitut, amatxo!

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Negarrak eta negarrak daude, eta niri orain masailetan behera tai gabe erortzen ari zaidan likido gazi honek erraietako tolestura fin eta sentikorren batean behar du izan iturburua. Kontrolaezina bezain ederra da horrela ateratzen denean, kanpo-estimuluren batek justuki eta konkretuki ukitu behar duen botoia zehaztasun horrekin sakatzen denean.

Autoan harrapatu nau oraingoan, lanera bidean, kantu baten notetan eta hitzetan. “Edonora joango nintzake (...), behar ditudan bide guztien mapa baitago zure eskuetan”. Burmuinean artxibatutako irudiak errenkan, oxitozina isuri betean. “Kapa gorriaren ordezkaukazu amantala, baina, nik ikusten zaitut heroi bat bazina bezala”. Betileak blai, ezarrria zotinka.

Badira bost urte abesti hori negarrik egin gabe entzun ezin dudala. Aurretik ere ezagutzen nuen, eta iruditzen zitzaidan ale bat artistikoki ederra. Baina sorkuntzarekiko edozein balorazio subjektibo biderkatzzen, hazten, anplifikatzen da, gure bizitza bertan islatuta ikusten dugunean.

Bai baitira bost urte amatu nintzela, eta, horrekin batera, gure Spotify zerrenden topean sudur gorriak eta irribarreak ageri direla. Seme zaharrenari “Bizi dantza” jarri nion buklean; gazteenarentzat munduko pailazo guztiak dira Pupu. Hori ere lortu dute irrien lagunek: izen propio bat substantibo arrunt bilakatztea, haur baten burmuinean.

Bosturteko honetan ez dakit zenbat aldiz bidaiatu ote dudan nire bizialdiko bosturtekoetara, eta gogoratu gurasoen etxeko egongelarekin, Saturnino dantzatzuz. Berritu hogeitau urte nitueneko uda, Gorriti Aztia kantatzuz zaintzen nituen bikiekin. Hautsa kendu astero parrandan sa-soiko ibiltzen gineneko oroitzapenei, Maite zaitut runba tekila txupitoekin uztartzuz.

Denetan dago malenkonia, iragandako pozagatiko tristura; finean, bizitza bera onartzen ikastea. Akaso hori da Pirritx, Porrotx eta Marimototsek bosturteko hauetan guztietan emandako irakaspenik handiena. Bada nahikoa arrazoi haiei eskerrak emateko eta bizitza ospatzeko. •

Bakearen usoa testigu

Miren AZKARATE
BADIOLA

Palestinaren aurkako genozidioa salatzeke Donostiako manifestazioan egon nintzen aurreko larunbatean.

Gure sendiko hiru belaunaldi, oihera bera garrasika errepikatuz: “Palestina askatu!”. Hunkigarria izan zen, manifestazioan zehar, hainbatetan negarrari ezin eutsi egon nintzen, baita amaieran prest zegoen performance-a (zapatila pila bat lurrean jarrita, bonbardaketa bat iragartzen zuen sirena) ikustean ere. Haurrek luzatzen zizkidaten galderak erantzuten saiatu nintzen momentu oro, eta neure burua imajinatzen nuen

guda baten erdian: nolakoa izango ote litzateke bizitza?

Amaiera “Bakearen usoa” eskulturaz izan zen: hutsala, zentzugabea, baliorik gabea... Hitz egingo balu, ez ziratekeen 30 urte pasa behar izango Rosa Zarra erail egin zutela jakiteko, eta gezurra zela, behin eta berriro adierazi zuten bezala, gaixotasun batek hil zuela. Gu guztiok 30 urte hauetan oihukatu dugun bezala oihukatuko zukeen txori horrek, Ertzaintzak hil zuela. Usoa testigu da.

Non daude orain bakezale guztiak? Non Juan Maria Atutxa? Non daude

usoa bakearen sinbolo bezala erabili zuten demokrata guztiak?

Zergatik onartu dute orain, 30 urte beranduago? Zein froga berri dituzte orain?

Inpunitatea, hori da euskal gatazkan batzuek gehiegi izan dutena; definitzen dituen. Poliki bada ere, azaleratuko duguna. Gu ez gara nekatuko, haiek nekatuko dira.

Inpunitatea, Israel (eta Europa) definitzen d(it)uen hitza. Ez du balio 30 urte barru onartzea Palestinar herriaren aurkakoa genozidioa izan zela. Usoak bada-ki, gutako batzuok ere bai. •